

Felipe Gonzalezek GALEn aferan deklaratzeko onartu du Entzutegiak

Akusazio partikularren eskakizunari erantzun dio Entzutegi Nazionalak

Entzutegi Nazionalak onartu egin du salaketa partikularren eskakizuna: Felipe Gonzalez Espainiako lehendakariak, ustez GALari lotutako Jose Amedo eta Michel Dominguez polizien kasuan deklaratzeko.

MADRIL

Entzutegiko gelak era berean, onartu egin du Jose Barrionuevok -gaur egungo Garraio eta Komunikazio ministro eta lehenago Barne saileko arduradun nagusia izandakoa-, Jose Luis Corcuera -sail horretako gaur egungo arduraduna-, Jose Maria Rodriguez Coloradok -Poliziako zuzendari nagusia- eta Rafael Verak -Estatuko Segurtasunerako idazkaria- ere afera berberari buruz deklaratu dezaten.

Bai Felipe Gonzalez lehendakariak eta baita beste bi ministroek ere, idatziz deklaratu ahal izango dute, duten eskubidea erabiliz gero.

Entzutegi Nazionalak atzo aurreratu zuen epaiketaren data datorren ekainaren hamarretik aurrera izango dela, eta ahozko epaiketak, gutxienez, hilabete iraungo duela iragarri zuen.

Zentzu honetan, zehaztu egin zuten ahozko epaiketako saioen data ezarri baino lehen Gelako lehendakariari eskakizuna luzatu behar zaio, beronek agintzeko ekainaren hamarretik aurrera zein data izango den egokiena Entzutegi Nazionalako Gela libre gelditzeko hilabetez afera honetan bakarrik erabil dadin.

Honetarako kontutan hartu behar da dira dauden ekitaldien kopurua, egin beharreko frogan korapilatasuna eta batez ere lekuko kopurua,

HBko ordezkariak Bruselen Golkoko gudaren aurka

BILBO


Jon Idigoras HBko Mahai Nazionalako eledunak eta Karmelo Landa alderdi berbereko europarlamentariak parte hartuko dute gaur Bruselen bakearen alde eta Golko Perstiarreko gudaren aurka plataforma europarra osatzeko bilkuran.

Bilerara 100 europarlamentari bako gehiagok deitu dute, eta Belliard eraikitako 63. gelan izateko da, atzo erakunde politikoak ohar baten bidez jakin erazi zenez.

Deialdia luzatu duten parlamentarien artean laboristak, berdeak, Holandako sozialistak, Ortazar taldekoak daude, Karmelo Landa HBko ordezkariak gain. Europarlamentari talde honek bakearen alde eta Ekialde Hurbilerako NBERen begiradapean Bake Konferentzia baterako deia lehenbailehen deitzearen alde, erabaki bat eragin zuen Europako Legebiltzarrean.



Felipe Gonzalezek deklaratu ahal izango du «Amedo» kasuan.



eta baita epaiketaren segurtasun neurri nahikoekin burutu ahal izateko baldintzak.

FONDO SEKRETUAK, SEKRETU Bestalde; Entzutegi Nazionalako erabakiak salaketa partikularrek eskatu zituen gainontzeko lekukoak ere onartu ditu, Ismael Miguel Gutierrez izan ezik Tailandian preso bait dago, droga arazoak medio.

Lekuko hauen artean daude Amedo eta Rodriguezen nagusiak polizia erakundean, hala nola Jesus Martinez Torrez Ingormazio komisario orokorra eta Rafael Masa. Hautez gain, ustez GALEko mertzenariak diren portugaldarrak eta Inmaculada Comez eta Maria Angeles Balsategi, Amedo eta Rodriguezen neska lagunak.

Hala eta guztiz ere, Entzutegi Nazionalak ukatu egin zuen salaketa pribatuak fondo sekretuei buruz eskatu zuen informazioa, esaterako Amedok 1986. go Urtarrilaren bukaeran Portugalera joan ahal izateko

Entzutegi Nazionalak ukatu egin du salaketa pribatuak fondo sekretuei buruz eskatu zuen informazioa.

dirua nork eman zion eta ea bidaia horren egiaztagiririk ematera behar-tua ote zegoen argitzea.

Beste maila batean, Entzutegiak onartu egin zituen fiskalak aurkeztutako frogak guztiak, Rodriguez Coloradoren lekukotasun frogak barne dela eta baita Frantziari eskakizuna luzatzea ustez 'galkidea' den Jose Figueiredo Fontesek lekuko bezala deklaratzeko, eta beste eskakizun bat Portugali Rogerio Carvalho eta Antonio Ferreirak deklaratu dezaten.

Behin Entzutegiko 3. atalak gela libre dagoela esan ostean, Prozesatu guztiak Madrilgo gartzelaren batera eramango dituzte, epaiketak dirauen artean.



TEMPO de Conciliacion' izenburuko liburua aurkeztu zuen atzo Jesus Egiguren, Gipuzkoako PSE-PSOeko idazkari nagusiak, Arzak jatetxean egin zen bazkari batean. Jesus Egigurenek, Carlos VILLAGRANen argazkian, Ramon Jauregi PSE-PSOeko idazkari nagusia eta Luis Haranburu Altuna Kriselu argitaletxeko zuzendariaren artean, aurreko legegialdiaren kronika bat idatzi du, Gasteizko Legebiltzarreko lehendakariak eman dion jarlekutik. Egigurenen kronikak abiapuntu bat du: 1987ko otsailan PSE-PSOek eta EAJk sinatutako gobernu akordioa.

Tortura salaketak gaur Arregi hil zeneko hamargarren urtean

DONOSTIA

Gaur betetzen dira hamar urte polizi komisaldegian jasan zituen torturen ondorioz hil zela Joseba Arregi, 1981eko otsailaren 4an Madrilgo Segurtasun Zuzendaritza Nagusira eramane zuten eta hamar egunetan itaundu zuen bertan poliziak. Hamargarren egunean, bere osasun egoera larria zela eta Carabancheleko Hospitaletik baldintza hobek zituen beste baterako bidean hil zen.

Hamar urte pasata, torturak salatzen jarraitzen da Euskal Herrian, eta tortura kasuetan prozesatutako polizia edo goardia zibilen aurkako zigorrak arinak izaten jarraitzen dute. Joseba Arregiren itaunketaz arduratu ziren bi poliziak hiru eta lau hilabetetako gartzela zigorrera eta hiru urtetako inhabilitaziora kondenatu zituen Epaitegi Gorenak, 1985ean Madrilgo Probitzi Epaitegiak erabakitako aske uztea atzera botatz.

Atzo jakin ahal izan zen bestalde, pasa den ostiraleko espainiar Ministro Kontseiluak torturaz prozesatutako hiru goardia zibil indultatu zituela. Jose Mari Olarra eta Lucio Olarra eta Ignacio Olaetxea torturatu zituz-

tela frogatuzat jo zuen 1986an Donostiako Probitzi Epaitegiak.

Anmistiaren aldeko batzordeek protesta eguna deitu dute igande honetarako, hilak 17, Euskal Herriko herri guztietan tortura salatuzko, eta larunbatean Joseba Arregiren jaioterrian, Zizurkilan, omenaldia eskainiko zaio. AAB-Bek salatu dutenez, «tortura ez da iraganeko zerbait, ohizko ekintza baizik komisari eta koarteleetan, eta ez da eraberean, gutxi batzuren gauza. «PSOeren gobernuak bultzatu eta kontrolatzen duten bide errepresiboaren barne dago tortura» diote Arregiren heriotza gogoratzerakoan AAB-Bek.

HBk bere aldetik, gaurko eguna «torturak etengabe dirauelako baieztapena» izango dela eritzi zion atzo igorritako ohar batean. Bide beretik, HBk gaitzetsi egin zuen torturazegatik epaitutako goardia zibilak estatuaren indultoa jaso dutela, «Joseba Arregiren heriotzaren hamargarren urteurrena ospatzeko era lazarria» dela salatuz. Erakunde politiko honen oharrean agertzen denez, tortura «boterearen atal batzuek sortu eta ezinhobeto babestutako makinaria» da, eta beraren aurrean «indarge» dauden pertsonen aurka erabiltzen da.

Trebiño elkartzeko elkarlana eskatu dio HBk Jauralaritzari

F.I. / GASTEIZ

Herri Batasunak alderdi politikoei, batez ere euren burua «abertzaleztat» dutenei, elkarlanean aritzea eskatu die, Trebiño, Arabara elkartzeko, Trebiñoko gehiengoaren nahia hori bait da. Herri Batasunak dio Euskal Herriaren berreraikuntza lortzeko lurraldetasun osoa eskuratzeko ezinbestekoa dela, eta horretarako denon partaidetza behar beharrezkoa dela.

Herri Batasunaren ustez, Gernikako Estatutoak ez du erakutsi Trebiño elkartzeko tresna egokia denik, eta estatutoak dioenarekin ez bada posible, hori gaitzetsi elkar-

lanean aritzea eskatu die HBk gobernu hiru alderdiei.

Trucios herrian, egun Cantabriako lurraldekoa, erreferenduma egitea onartu du Auzitegi Konstituzionalak, behin betirako EAEko izateko eta elkartzeko martxa hori eta erreferenduma ere bultzatu behar dela Trebiñon jakinarazi du alderdiak. 1986. urtean Auzitegi Konstituzionalak Trebiño Burgosekoa izatearen alde agertu zen, eta hori erabaki politikoa izan zela adierazi du Herri Batasunak.

Auzia politikoa bada, irtenbide politikoa aurkitu behar zaio uste du HBk, baina beti ere biztanleen go-goak errespetatuz.

Espainiako erregearekin bilduko da Ardanza Madrilan

F.I. / GASTEIZ

Ardanza lehendakaria eta Juan Carlos Espainiako erregea La Zarzuelako jauregian elkarriketatzeko dira gaur arratsaldean. Gaurko honekin biak elkarriketatzen diren zazpigarren aldian izango da.

Ardanzak, otsailaren lehen lehendakari izendatu bezain pronto elkarriketa honen berri eman zuen, eta Felipe Gonzalez gaur bera egiteko asmoa zuela ere, baina azken honekin ez du oraingoz hitzegin, gobernuko iturriek atzo jakinarazi zuten. Bestalde, gobernu kontseiluak eskualdaketerako bitariko batzor-

deen partaideak izendatu zituen atzo. Batzorde honetan Jon Azua lehendakariordea, Joseba Zubia, Larrea Ogasun sailburua eta transferitu behar den sailaren arduraduna egongo dira. Kupoaren bitariko batzordean Jose Luis Larrea ogasun eta finantza sailburua eta bere sailburuordea Mari Karmen Gallastegi ekonomia sailburuarekin batera arituko dira. Eusko finantza kontseilua Jon Azuak, Joseba Zubiak eta Jose Luis Larreak osatuko dute eta Eusko Jauralaritza eta Foru Aldundien arteko bitariko batzordea Azuak, Larreak eta Josu Bergara garraio sailburuak.